

ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

ERABAKIA, ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIARENA, LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-EREDU PROPIOA GARATZEARI BURUZKOA

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 14an, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaia bildu da, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeen parte-hartzearekin, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

2022ko azaroaren 22an, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak «**Langileentzako prestakuntza-eredu propio baterako oinarriak**» izeneko dokumentua onartu zuen, zeinetan prestakuntza-eredu berri baten printzipioak eta ardatz estrategikoak ezarri ziren. Eredu hori EAEko langileen eta enpresen etengabeko kualifikazio-beharrei erantzuteko sortu zen, bai eta trantsizioei modu justuan heltzeko ere: trantsizio teknologikoa, energetiko-ingurumenekoa eta soziodemografikoa.

Oinarri horiek eredu propio bat definitu zuten, integrala, eskaintzatik eta eskaritik abiatua, dinamikoa, arina eta malgua, premien prospekzio partekatuan oinarritua, Lanbide Heziketaren Euskal Legearen eta Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruaren eremuan, eta Euskadiko prestakuntza-politikak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko hiruko gobernantzako gune egonkor bat eratzea aurreikusten zuena.

Erabaki hura garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak modu koordinatuan lan egin dute ereduaren diseinu operatiboan, eta zehaztu dute nola egituratu behar diren **Hezkuntza Sailak akreditatu dezakeen prestakuntza** eta **Enplegu Sailak egiazta dezakeen prestakuntza**, bai eta ikastetxeen sare osoak (publikoak, itunduak eta beste zentro eta erakunde pribatu batzuk) parte hartzeko baldintzak eta dagozkion plangintza-, finantzaketa-, baimen-, egiaztapen- eta ziurtapen-mekanismoak ere.

Testuinguru horretan, tresna partekatuak egin dira, hala nola ereduaren urte anitzeko hedapen-kronograma bat, 2026-2028 urteetarako lan-proposamena, eta akreditatu eta egiaztatu daitekeen prestakuntzaren garapen-eskema, maila eta graduen arabera, barnean hartuta ziurtagiri profesionalen, konpetentzia-ziurtagirien eta konpetentzien akreditazio partzialen erregistro autonomikoaren aurreikuspena, Kualifikazioen Euskal Esparruarekin bat etorritz.



Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak, 2022an onartutako oinarrien garapen-maila aztertu ondoren, aurrerapen nabarmena egin dela egiaztatu du; oso positibotzat jo du Hezkuntza Sailaren eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren arteko koordinazioa, eta, bere iritziz, egindako lanek aukera ematen dute eredu koherentea, operatiboa eta 2022ko akordioan ezarritako helburu estrategikoekin bat datorrena izateko.

Hori guztia dela-eta, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa.- Ontzat ematea Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren 2022ko azaroaren 22ko Erabakiaren garapena, langileentzako prestakuntza-eredu propioari buruzkoa.

Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak adierazten du Eusko Jaurlaritzak eta, zehazki, Hezkuntza Sailak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 2022tik aurrera egindako garapen tekniko eta operatiboa bat datorrela erabaki horretan onartutako oinarriekin, eta behar bezala gauzatzen dituela haren printzipio gidariak.

Ondorioz, Mahaiak egokitzen jotzen du koordinazio-eredua definitzeko fasea, eta uste du baldintzak betetzen direla hedapen progresiboko eta ebaluazio jarraituko fase batera aurrera egiteko, adostutako hiruko gobernantzaren esparruan.


Mahaiak erabaki du eredu berri hori ezartzean arreta berezia jarri beharko zaiela laneratzeko eta enpleguan irauteko zailtasun handienak dituzten kolektiboek, enpresa txiki eta ertainek, eta birkualifikazio-premia handienak dituzten lurralde eta eskualdeek, 2022an onartutako oinarriekin bat etorritik.

Bigarrena.- Hezkuntza Sailak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak Euskadiko langileentzako prestakuntza-eredu berria diseinatzeko egindako lana aitortzea.

Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak egokitzen ditu bi sailek egindako lanak; besteak beste, batzuk aipatze aldera, guztiak ez badira ere:

- Argitzea eta egituratzea **Hezkuntza Sailak akredita dezakeen prestakuntza eta Enplegu Sailak egiazta dezakeena**, bakoitzari dagozkion erantzukizun- eta koordinazio-eremuak zehaztuta.

Akordia, langileentzako prestakuntza eredu propioa garatzeari buruzkoa



- Prestakuntza-zentroen sareak langile okupatuei eta langabeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza ematean duen zeregina zehaztea.
- Urte anitzeko lan-proposamena, zenbait mugarri aurreikusten dituen, hala nola ikastetxeen mapa, eskualdeko behatokiaren garapena, sailen arteko aginduak, itunpeko ikastetxeetarako eta erakunde pribatuetarako deialdiak, eta eskaintzaren plangintza ikasturte eta ekitaldi bakoitzean.
- Ziurtagiri profesionalen (C gradua), kompetentzia-ziurtagirien (B gradua) eta kompetentzien akreditazio partzialaren (A maila) **erregistro autonomikoa** sortzeko aurreikuspena, langileek lortutako kualifikazioen trazabilitatea, aintzatespena eta gardentasuna bermatu ahal izateko.


Hirugarrena.– Hezkuntza Sailaren eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren eta gizarte-eragileen arteko koordinazioari balioa ematea, eredu berriaren elementu nagusi gisa.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaia azpimarratzen du eredu garatzeko prozesuaren lorpen nagusietako bat izan dela **lankidetzaren dinamika egonkorra** finkatzea Hezkuntza Sailaren (Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren bidez) eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren artean (Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzaren eta haren kudeaketa-erakundea den Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bidez). Era berean, positibotzat jotzen du koordinazio hori gizarte-eragileen lankidetzarekin antolatzea.

Honela gauzatzen da koordinazio hori:

- Prestakuntza-premien eta profil profesionalen **prospekzio partekatua**, eskura dauden tresnekin antolatua, Lanbideko Prestakuntza Premiak Aztertu eta Hautemateko Aholku Batzordea barne, eta azterketa zehatzagoak egitea (sektorialak, lurraldekoak, etab.).
- Ikastetxeetan eman beharreko prestakuntza-ekintzen **plangintza bateratua** egitea, lanbide-heziketako sistemaren orientazio estrategikoaren eta enplegu-politika aktiboaren arteko koherentzia bermatuz.
- **Finantzaketa-mekanismo osagarriak** diseinatzea, langile okupatuen eta langabeen prestakuntzara bideratutako baliabideak modu efizienteagoan erabiltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen ezarritako eran.
- LHko sistemari lotutako prestakuntza **baimentzeko eta akreditatzeko** funtzioak eta enplegu-sistemari lotutako prestakuntza **ziurtatzeko** funtzioak integratzea.

Akordioa, langileentzako prestakuntza eredu propioa garatzeari buruzkoa



Mahaiaren iritziz, koordinazio hori ereduaren egiturazko aktibo bat da, eta erreferentzia gisa aipatzen du Euskadiko prestakuntza- eta enplegu-politika guztietarako.

Laugarrena.- 2026-2028 aldian langileentzako prestakuntza-eredu propioa progresiboki ezar dadin bultzatzea.

Erabaki honetan jasotako lanak oinarritzat hartuta, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiari egokia iruditzen zaio eredu propioa hedatzea, adostutako urte anitzeko plangintzaren arabera, zeinetan, besteak beste, elementu hauek sartzen baitira:

- Hezkuntzak/LHk akreditatu dezakeen eskaintza eta Enpleguak/Lanbideak egiaztatu dezakeen prestakuntza egituratzea eta planifikatzea progresiboki.
- Legean aurreikusitako deialdiak edo bestelako finantzaketa-mekanismoak abian jartzea itunpeko ikastetxeentzat, ikastetxe pribatuentzat eta beste erakunde batzuentzat, betiere plangintzan oinarrituta eta erakunde eskudunen baimenarekin.
- Prestakuntza-ekintzak eta lortutako akreditazioak eta ziurtagiriak kudeatzeko, jarraipena egiteko eta erregistratzeko behar diren tresnak garatzea.


Bosgarrena.- Ereduaren hiruko gobernantza, jarraipena eta ebaluazioa finkatzea.

2022ko oinarrietan hartutako konpromisoarekin bat etorriz, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak erabaki du **hiru alderdiko gobernantza-eremua** indartzea langileen prestakuntzaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren eta enpresa- eta sindikatu-erakundeen arteko informazio-, kontraste- eta hitzarmen-eremu egonkor gisa.

Horretarako, Elkarrizketa Sozialerako Mahaian:

- **Eusko Jaurlaritzak kronogramaren gauzatze-egoeraren berri emango du aldi-aldian**, programatutako eta egindako eskaintzaz, erabilitako baliabideez eta lortutako emaitzez, parte-hartzeari, kualifikazioari eta enplegarritasunaren hobekuntzari dagokionez.
- Ereduaren funtzionamendua eta garatutako jardueren inpaktua **etengabe ebaluatzeko mekanismoak** ezarriko dira, behar diren doikuntzak eta hobekuntzak adostasunez egin ahal izateko.

Horretarako, Elkarrizketa Sozialeko Mahaiko koordinazio-taldeak berriazko lantaldeetara deitu ahal izango du ereduaren alderdi zehatzen jarraipen teknikoak egiteko, egoki irizten dionean.



Seigarrena.- «Konpetentzia aitortzeko dispositiboaren» prozeduraren eremuan Tasen Legea aldatzeko proposamena.

Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak erabaki du Eusko Jaurlaritzari eskatzea alda dezala *Konpetentzia Aitortzeko Dispositiboaren* prozedurari aplika dakizkiokeen tasen arloan indarrean dagoen araudia, inklusioaren, enplegarritasunaren eta lanbide-kualifikazioa hobetzearen helburuetara egokitu dadin, langileentzako prestakuntza-eredu propioaren xede direnez.

Horretarako, Mahaiak proposatu du Tasen Legeak barne har ditzala, salbuespen-kasuen artean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak berariaz aginduta dispositibora sartzen diren pertsonak, erakunde horrek kudeatzen dituen enplegarritasuna aktibatzeko eta hobetzeko programetako baten esparruan, honako hauek berariaz barne hartuta:


- **Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala (IPIP).**
- **EPIP – Enplegu Plan Integratu eta Pertsonalizatua.**
- **Enplegu- eta prestakuntza-ibilbide mistoak** edo Lanbidek kualifikazioa edo laneratzea hobetzeko etorkizunean abian jar ditzakeen beste programa baliokide batzuk.

Mahaiaren iritziz, salbuespen hori koherentea da ekitate-, irisgarritasun- eta birkualifikazio-premia handienak dituzten pertsonen laguntzeko printzipioekin, eta azpimarratzen du salbuespen hori sartzeak modu erabakigarrian lagunduko duela kompetentziak egiaztatzeko prozesuak errazten eta Dispositiboak Euskadin bizialdi osoko kualifikazio-tresna gisa duen zeregina indartzen.

Zazpigarrena.- Erabakia hedatzea eta eguneratzeko konpromisoa.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak erabaki du erabaki hori hedatzea Euskadin prestakuntzan eta enpleguan inplikaturako eragile guztien artean, bizialdi osoko prestakuntza-eredu propio batekin partekatutako konpromisoaren adierazpen gisa, ekonomia lehiakor, jasangarri eta inklusibo baten eta gizarte kohesionatu baten zerbitzura.

Era berean, Mahaiak konpromisoa hartzen du akordio honen eta prestakuntza-ereduaren beraren edukiak **berrikusteko eta, hala badagokio, eguneratzeko**, kontuan hartuta ezarpen-esperientzia, arau-esparruaren bilakaera eta lan-merkatuan eta EAEko pertsonen eta enpresen kualifikazio-premietan gertatzen diren aldaketak.



Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko kide diren alderdiek erabaki hau sinatzen dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Eusko Jaurlaritzaren izenean,

Mikel Torres Lorenzo

Mikel Jauregui Letemendia

Begoña Pedrosa Lobato

Nerea Metzosa Vega

Confebasken izenean,

Tamara Yagüe Martínez

Sindikatuaren izenean,

CC00

UGT